Donostia, 2025eko martxoaren 31

40/25 PRENTSA OHARRA

DTK-K MEMORIA AURKEZTU DU ETA 2024AREN BALANTZEA EGIN DU

1. Bidaiak Dbusen

2024. urtean Dbuseko zerbitzuetako autobus bidaiak **32.026.966** izan dira, eta aurreko urtean, berriz, 29.599.122 bidaia erregistratu ziren.

Linea erabilienei dagokienez, 2024an gehien erabili den 13-Altza linea izan da, eta horren atzetik 28-Amara-Ospitaleak eta 5-Benta Berri lineak. Hiru lineek AENORen kalitate ziurtagiria dute, Bidaiarien Garraio Publikoari buruzko **UNE-EN 13816 arauak** araututa, baina arauak ezartzen dituen konpromisoak, hiru linea horietan ez ezik, autobus flota osoan eta Konpainiaren eguneroko funtzionamenduan ere aplikatzen dira.

2. Bidaiak Dbizin

Dbiziko bidaiek 2024an izan duten bilakaeran nabarmena izan da eskariek izan duten igoera, aurreko ekitaldiarekin alderatuta handia izan baita. Hala, 2024an 1.294.358 bidaia erregistratu dira, eta pasa den urtean, berriz, 945.642 erregistratu ziren, hau da, bidaiek %27 egin dute gora. Azpimarratzekoa da ohiko erabiltzaileek bizikleta elektrikoak nahiago dituztela argi eta garbi. Urtean egindako bidaia guztietatik, %75,33 bizikleta mota horrekin egin dira.

Sistemako abonatu kopuruari dagokionez, 2024ko abuztuan abonatuen kopuru maximoa erregistratu zen, 13.508 erabiltzaile; horrek esan nahi du sisteman %26 abonatu gehiago dagoela, 2023ko daturik onenaren aldean (10.879 abonatu 2023ko irailean).

3. Bideberdea: etorkizun %100 elektriko eta jasangarri baterantz

Bideberdea da Dbusek eta Donostiako Udalak garraio publikoa zerbitzu garbia eta isila bihurtzeko egiten duten apustua, eta Dbus ZERO autobus berrien bidez zerbitzu hobea ematen duena, Bideberdea harago doa. Ez da soilik garraio proiektu bat, konpromiso sozial bat ere bada, bai eta Donostiako herritar guztientzat etorkizun hobe bat bilatzen duen hiri proiektu bat ere, 20230erako **flota %100 elektrikoa** izatea helburu duena.

Hori lortzeko, datozen sei urteetan Donostiako Tranbia Konpainiak bere historiako 138 urtean izango duen eraldaketarik handienari ekingo dio, **zerbitzua deskarbonizatuko baitu**, flotari ez ezik Konpainian eguneroko funtzionamenduari eusten dion **azpiegitura** guztiari eraginda.

Bideberdea da 2030ean Dbus %100 jasangarria izatea lortzeko jarraituko dugun bidea. Asmo handiko helburua da, baina abantaila asko ekarriko ditu:

1. **Zero emisioak**: 2030ean erabat desagertuko dira gure flotaren CO2 emisioak, eta horrek gure hiriko airearen kalitatea nabarmen hobetzea ekarriko du.

2. **Zarata gutxiago**: Autobus elektriko berriak %80 isilagoak dira, eta kutsadura akustikoa nabarmen murrizten dute. Horrela, Donostiatik ibiltzea edo Donostiako espazioetan bizitzea atseginagoa izango da.

3. **Bidaia azkarragoak**: autobus elektriko adimendunak (BEI) errei esklusiboak izango ditu, eta bere ibilbidearen zati batean semaforoetan lehentasuna izango du; horri esker lehenago iritsi ahal izango da helmugara.

4. **Irisgarriagoa**: BEIren geltoki berrietan, espaloia eta autobusa altuera berean daude, eta horri esker irisgarriagoak dira mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat eta aulki gurpildunak eta haur kotxeak sartzeko.

5. **Itxaronaldi gutxiago**: BEI autobus berrian ate batetik baino gehiagotik sartu ahal izango da aldi berean, bidaiariak arinago sartzea eta irtetea ahalbidetuta. Txartela geltokian erosi ahal izango da; horrela, autobusera sartzeko denbora gutxiago beharko da.

- **17-Gros-Amara-Miramon BEI linea berria (Bus Elektriko Adimenduna):**

17-Gros-Amara-Miramon linea aukeratu dute **BEI Sistema** inplementatzeko, **emisiorik gabeko garraiobide elektriko** bat, hiri jasangarriago bat lortzen lagunduko duena, kerik gabea eta gaitasun handiko sistema baten bidez kutsadura maila baxua duena.

Gainera, oro har, hobekuntza ugari eskaintzen ditu, eta hobekuntza horiek lagunduko dute erabiltzaileek bidaia esperientzia oso ona izaten. Azpimarratzekoa da, adibidez, autobusera igotzeko eta bidaia egiteko denborak murriztuko direla, sartzeko ate gehiago gaituko direlako, ordaintzeko ticketing eragiketak (QR bidaia txartelak erostea edo txartelak kargatzea) geltokian bertan eta autobusera sartu aurretik egin ahal izango direlako eta semaforoetan lehentasuna izateko sistemak egongo direlako, besteak beste.

Autobusen barrualdea ere gidariengan zein erabiltzaileengan pentsatuta diseinatuko da, eta diseinu abangoardista eta erosoagoa izango du. Aurreikusita dago, halaber, BEI autobusen markesinek diseinu berritzailea izatea eta funtzionalitate berriak eskaintzea, hala nola informazioa alde bietatik ematen duen pantaila digitala eta 17 linea identifikatzeko totema, LED argiekin eta minutuak adierazita. Zutoinak dituzten geltokiek ere totem identifikatzailea izango dute, baita pantaila digitala ere.

Linearen elektrifikazioarekin, egungo diesel autobusen ordez **18 metroko bederatzi autobus elektriko artikulatu jarriko dira**, eta autobus berri horiekin edukiera hobetuko da eta erabiltzaileak erosoago joango dira. Era berean, BEI linea berria abian jarrita, urtean **239.528 litro gasolio kontsumitzea eta 645 Tn CO2 gutxiago isurtzea** aurreikusten da.

Horretarako, linearen elektromugikortasun beharrak asetzeko, laster Kotxetegietako **kanpoko aparkalekua elektrifikatzeko** lanak hasiko dira Zubiaurre pasealekuan sare elektrikorako konexio berri batekin.

4. Herritarren Pertzepzioari buruzko Inkestan balorazio ona

Donostiako Udalak 2024ko udan Estrategia Bulegoarekin batera egindako Herritarren Pertzepzioari buruzko Inkestaren emaitzei esker jakin izan da garraio publikoa dela **donostiarrak gehien asebetetzen dituen azpiegitura edo ekipamendua**, %85,2ko gogobetetze indizearekin.

Azterketa, guztira 16 eta 84 urte bitarteko pertsonei egindako 1.213 inkestaren bidez egindakoa, 2030 Plan Estrategikoaren jarraipenerako egindako lanetako bat da, eta herritarrek beren hiriari, perspektibei eta erronkei dagokienez duten sentimendua eta balorazioa egiaztatzeko tresna gisa balio du. Balorazio horrek aurretik egindako inkestekin (2005, 2008 eta 2017) eta Europako beste hiri batzuekin alderatuta izan duen bilakaera ebaluatzeko aukera ere ematen du.

Era berean, Europako beste 84 hiritan ere egin da ikerketa hori, hala nola Oslon, Berlinen, Stockholmen, Zurichen, Londresen edo Madrilen. Hiri horietako guztietako emaitzekin alderatuta, non herritarrek %71,6ko balorazioa eman dioten garraio publikoari, **Donostia da garraio publikoa ondoen baloratu den hiria**.

Balorazio on horrek garraio publiko eraginkorrago, jasangarriago eta irisgarriago baten alde lan egiten jarraitzeko bultzada gisa balio du, hiriko auzoen arteko lotura izango den eta beste garraiobide batzuekin lotzea ahalbidetu duen garraioa izan dadin.

Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu www.dbus.eus helbidean edo deitu 900 840 146 telefono zenbakira.